

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

133n. Zenbakia Iraila
1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



D. ALBERTO ONAINDIA'ri
(AITA OLASO)
OMENALDIA
DONIBANE LOITZUN'en
(1989-7-18)
BERE ERIOTZATIK
URTEAGARRENA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

1989 - 90 IKASTURTEA

°(

OGEITABIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA: 10.000 pezeta

IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2
BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

22.⁰ CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. **3** NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 10.000 pesetas

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

ALBERTO ONAINDIA, GUDALDIKO BAKE-GIZONA (Donibane Loitzun'en, 1989-7-18'an)

Jaun Andreok:

Urtea da gure D. Alberto, Aitaren etxera joan zala eta aiztu-eziña dogu bere gomutapena. Maitasunaz eta esker onaz gogoratzen dogu gaur bere irudi maitagarria.

Bere bizitzako jakingarriak labur-labur agertzeko esan dauste eta benetan pozgarria da nitzat egun onetan zeregin au betetea, D. Alberto'ren eleiz-jokabideak, erri-lanak eta euskal-zaletasuna gogoratzea.

* * *

GERTAKUNTZA-ALDIA

Guztiok dakigu, eta ez da zertan baieztatu, gure D. Alberto buru argiko gizona zala. Eta ori jaiotzatik artu eban emaitza izan eban, baiña argitasuna doan artua izan arren, jakituria ez da berezkoa, atxurto ta sakondu egin bear izaten da bizitza; buru-argiak jaio egiten dira, baiña jakitunak egin.

Markiña'n jaio zan D. Alberto eta antxe egin ebazan lenengo ikasketak. Gero Gazteiz'ko Abadegai-etxean bigarren maillako ikasketak. Ikaste-lan au Erroma'n amaitu eban Filosofi ta Teoloji-arloko doktoradutza lortu ebanean.

* * *

IRAKASLE TA KANONIGU

Erroma'tik biurtu zanean, Abade-gai-etxean irakasle izendatu eben. Berak esaten euskun zein zan beretzat ardurarik aundiena: Abade-ikasleak gizabidez eta biotz onez artzea. Samintasunaz gogoratzen eban irakasle batzuk erabilten eben jokabide gogorra, eta aurpegira bota be egiten eutsen geroago, orain ospetsu diran irakasle batzui. Berak biotz ona agertzen eutsen gazte gogotsu arei, biotz ona agertu eta adorea emon.

Urte batzuk geroago Valladolid'eko Kanonigu izateko norgeiagora aurkeztu zan eta kanonigutza ori lortu be bai. Egia esan, gaiñera etorri jakozan lan aundiak ez eutsoen asti aundirik itzi koruan abesten ekiteko; orregaitik eta beste zio illunago batzukaitik, kanonigutza ori kendu egin nai izan eutsoen baiña epai zuzenak barriri eskuratu eutson.

*

LENENGO APOSTOLU-LANAK

Beti izan da eleiz-gizonen eta laikoen zeregin aundi ta astuna Barri Onaren eskariak erri-bizitzarra sartzea. Au laikoen zeregiña da batez be, baiña abadeen zeregiña da orretarako laikoak gertatzea. Onetan egin ebazan D. Alberto'k bere lenengo lanak: Kristiñauak sindikatoetarako gertatzen, batez be orduan oraindiño naikoa barria zan ELA'rako. Orretarako egiten ebazan erririk erri batzarrak eta berbaldiak. Amets pozgarri bat lez gogoratzen eban D. Alberto'k bere gaztetako lan au.

Eta eleiz-giro batzutan olako lana ontzat artzen ez zan aldietan, beste bide batetik jokutzen eban elburu bardiña lortzeko: Katoliku-Ekintzaren bidea. Eta orretan be lan aundia egin eban, frutu onak be lortu ziran, baiña zori txarrez Katoliku-Ekintzaren Apostolutza-jokabideak be euren aldi txarrak izan ebezan eta gaur-egun oso makal aurkitzen dira. Dana dala, orixe da bidea eta D. Alberto'k lenengotatik agertu eban bide orren garrantzia. Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiak orretan, beste arlo askotan lez, ontzat artu dau bere jokabidea.

* * *

ERRIA ETA BAKEA

Arlo zabalagoak eta gaitxagoak zabaltzen ziran egunerik egunera D. Alberto'ren aurrean. Giza-eskubideak ziran arlo zabal ori, eta giza-eskubideen artean, erri-eskubideak.

Zapalduta agertzen ziran gizonak onartu-bearra izan eban sarritan, erbesteratuai bere ostatua emon-bearra be bai. Euskal-arazoak geroago ta biziago agertu ziran bere bizitzan.

ZER

Orduko Jaurlaritzak bere laguntza eskatu eban, bere aolkulari edo onulari-lana, eta lan ori oparo eskiñi eban, bai lenengo lendakari izan zan Agirre'tar Jose Antonio'k eskatu eutsanean eta bai beste erri-gizon asko beragana aurreratu ziranean. Aolkularia baiño geiago adiskidea zan.

Batikano'gazko artu-emonak argitzen alegindu zan eta Gazteiz'ko Gotzain izan zan Mateo Muxika'ri laguntza berezia emon eutson. Lotsagarria izan zan, askatasun aundi barik egia esan, Gasteiz'ko Gotzaiñak eta Iruñakoak, Martzelino Olaetxea zan au, izenpetu eben Artzain-Agiria, zapaltzaileen aldekoa, eta ori ta guzti be erbesteratua izan zan D. Mateo. Baiña gure D. Alberto'k argi ikusten eban agiri aren okerkeria eta bein eta bariro eskatzen eutson Mateo Gotzain jaunari oker ori zuzendu egin bear ebala. Ez zan erreza izan ori lortzea, baiña azkenenean agertu zan "Imperativos de mi conciencia" agiria, gure gaztaroen poz aundiaz irakurri genduan agiri ederra.

Euskalerrian guda-zaratak entzun ziranean, bake-gizon lez agertu zan D. Alberto eta alegin guztia egin eban bakea lortzen eta lortu ezin izan zanean, bakearen ondoren garratzak gozotzen. Jokabide onen adibide lez, Euskalerriak bere lurralde osoa galdu ebanean izandako Santoña'ko Itzarmena gogoratu geinke. Orretan zalantza aundiak izaten ebazan berak eta itzarmenik izan ete zan be iñoz galdetzen eban.

Kondaira-zaleak euren lan zorrotza ta zeatza eginda, billatuko dabez zalantza barik, D. Alberto'k egin ebazan bakearen aldeko alegiñak eta bakea eziña biurtu zanean berak artutako jokabide zuzenak.

IZLARITZA

Antxiña Erroma'tarrak esaten ebena jazo zan emen be: Vae victis! Zoritxarrekoak guda-galtzailleak!

Zer egingo ete eban gure D. Alberto'k gudaren ondoren sortzen diran eta irabazleai dagokiezan eritxi okerrak aztertzeke ta zuzentzeke edo zapalduta geratu ziran euskaldunai adorea ta poza emoteko?

Bide egoki ta eder bat aurkeztu jakon, irratiaren bidez bere abotsa zabaltzeko erea eta abots ori giza-eskubideen, erri-eskubideen eta ebanjelioko bidearen abotsa zan. Gogoan daukaguz oraindiño London eta Paris'etik berak egiten ebazan berbaldi ederrak eta gogo-emoilleak eta. orduan entzuteko erarik izan ez ebenak, gaur liburu egokietan irakurri leikeez: "James Masterton" eta "Padre Olaso" ospetsu biurtu ziran aldi aretan eta millak ziran asteroko entzuleak.

Baiña irabazleak minduta geratzen ziran itzaldi orreik entzunaz eta abagune egokia izan ebanean, laster alboratu eben gure izlaria, diñoenez Argelia'ren askatasun-arazoan autarkia emotearen ordez.

D. Alberto'k asko maite eban irrati itz egiteagaz lortzen eban ondorena, zapalduak adoretzea, zuzentasuna okerbidearen lekuan ezartea; eta Unesco'n idazkari-lana egitearen edo irrati-bidez itz egitearen artean aukerapena egin bear izan ebanean, bigarren au aukeratu eban, berbearen argitasuna zabaltzea.

ERRIETAKO BERBALDIK

Orainsuago, bere urteak aurrera joiatzela, oraindiño D. Alberto pozik etorten zan erri txikietara bere berbaldiak egiten. Gauza asko eukazan esateko eta bere poza zan esan bear zana esatea. Sakontasuna, jakingarrien ugaritasuna eta bizi izandako egoeren gomutakia berbako agertzen ebazan D. Alberto'k.

Izan be, gudaldi ta guda-osteko jakingarri asko eta bizi-biziak edesten ebazan eta pozik entzuten jakon. Gogoan daukat arako Aita Larrakoetxea (Benito)'ri Zeanuri'n egindako omenaldian izan eban itzaldia, erbesteratuak izan ziran umeak gogoan zirala.

EZ ZAITUGU AIZTUKO

Eta nire ekiñaldi labur au amaitzera noa. Epe labur onen barruan ainbat gauza agertzen alegindu naz, egia esan jakingarri zeatzak agertu barik baiña ori bai, gizonaren jokabidea, izan ebazan jazarpenak eta beti erakutsi eban biotz ona argi agertzen dirala.

Euskalerriak esker ona zor dautso D. Alberto'ri eta euskaldunak ondo aziak garan ezkerok, agertuko jako esker on ori. Abade euskaldunak eta eleiztar guztiak be argi ikusten dogu bere jokabide zuzena eta eredu lez artzen dogu Erriaren alde lan egiteko.

Besterik ez, Jaun-andreok, D. Alberto lako gizonak ugari izan dagiguzala gure erri jazartu ta zapaldu onetan, iñoz ez lako bizi-naia dauan gure erri onetan.

OLAZAR'tar MARTIN

LOIOLAKO INIGOREN LORATXOAK.

IÑIGO PARIS'EN 1528-1535

Iñigo'k berak esango deusku zelan joan zan Salamanka'tik Paris'era eta an zer egin eban.

"Eta onela, liburuak astoan artuta, bakarrik Salamanka'tik Paris'era abiatu nintzan, eta bertara ostsailaren 3'an eldu nintzan.

Espainiar batzuekin batera etxe batean jarri nintzan biziten, eta umanidadeak ikasteko Montaigu ikatetxera joaten nintzan.

Bartzelona'ko diru txartel bategatik, Paris'era eldu nintzanean, ango merkatari batek bost eskutu-diru emon eustazan, eta oneik ostatu aretako espainiar bateri gordeteko emon neutsezan, eta onek denbora gitxian dana gastatu eban, eta ez eukan niri nondik ordaindu.

Onela, bada, garizuma igarotakoan, ez neukan dirurik, eta eskean asi bear izan neban, baita bizi nintzen etxea itxi bear izan neban.

Eta Saint Jacques ospitalean artu ninduen, "Inozenteak" izeneko eleizatik arantzago. Ikasteko eragozpen andia neukan, Montaigu ikatetxetik urrun egoalako —ordu erdi edo—, eta ango atea zabalik aurkitzeko, "avemariak" jo aurretik etorri bear nintzan, eta eguna argituta urten; eta onela neguan ezin nintzan goizeko lenengo eskolan eta arratsaldeko azkenengoan bertan egon.

Jateko irabazteko limosna eskatu bearra be beste eragozpen zan.

IÑIGO ESKALE

Ba ziren iru bost bat urte urdailleko minak ez ninduela artzen, eta ala, penitentzia eta barau andiagoak egitera jo neban. Baina eskean aldi bat igaro ondoren ikasten gitxi aurreratzen nebala ikusi ondoren, zer egingo neban pentsatzen asi nintzan.

Eta ba zirala ikasle batzuk, ikatetxeetan maisuak serbitzen ebezenak, eta gero ikasteko astia ateraten eban jakin nebanean, nik be nagusi bat billatzea erabagi neban.

Eta erabagi onetan, nire barruan pentsatzen nebanean, poza artzen neban, maisua Kristo izango zala irudituz, eta ikasle bateri S. Pedro ipiñiko neutsan izen,

eta besteari S. Joan, eta alantxe apostolu bakoitxari; eta maisuak agintzen deustanean Kristok agintzen deustala pentsatuko dot, eta beste batek agintzen deustanean Pedrok agintzen deustala...

Asko alegindu nintzan nagusi billa, baina ezin izan neban aurkitu. Eta azkenean, beste urtenbiderik ezin aurkituz, fraile batek esan eustan obe izango nebala urtero Flandes aldera joatea, eta an bi illabete edo gitxiago galdu eskean, gero urte osoan ikasi al izateko.

Eta Jaungoikoari otoitz egin ondoren bide au ona zala iruditu jatan, eta Flandes'tik urtero negua igarotzeko beste ekarten neban.

Eta bein Ingalaterra'raño be joan nintzan, eta beste urteetan baino limosna geiago ekarri neban".

IÑIGOREN PARIS'KO LENENGO LAGUNAK, ETA NEKEAK

Flandes'tik lenengo aldiz etorrita, len oitura neban baiño gartsuago Gogo Jardunak ematen asi nintzan: Toledo'ko Peralta'ri, Sorbona'ko ikastetxean bizi zan Kastro batxillerrari, eta Santa Barbaran egoan Elduaien'go Amador izena eukan euskaldun bateri.

Oneik aldaketa andiak egin ebezan, eta bertan eukan guztia beartsuai emon eutseen, baita liburuak be, eta Paris'en limosna eskatzen asi ziran, eta Saint Jacques ospitalean biziten jarri ziran...

Aldaketa onek unibertsitatean zalaparta andia egin eban, eta bereala ango espainiarrak maisu bi onein aurka burrukan asi ziran, ostera be lengo lekura etorri zeitezela biziten eskatuz, baina ori ezin lortuz, egun batean armadun talde bat joan zan, eta ospitaletik atera ebezan...

Paris'en surru-murru andiak jaso ziran nire aurka, espainiarren artean batez be, eta gure nagusi eta irakasle Goubekiak, nik Amador Elduaien'goa zoratu egin nebala pentsatuz, zera erabagi eban: ni urrengoan Santa Barbara ikastetxera joaten nintzanean "salle" izeneko zigorraldia niri emotea, ikasleak zorutzen nenbillelako".

SANTUAK

("Salle" zigorraldia zera zan: gaiztakeria andiren bat egiten eban ikasleari, maisu eta ikasle guztien aurrean, zartailluz edo azotetz astiñaldi ederra emotea).

LAGUN BAT EZ AIN ONA

Asieran nigaz egon zan espainiar a, diruak ondatu eustazana, niri ordaindu barik Espainiara joan zan, eta Rouan'go kaian ontzi baten begira egola, geisotu egin zan, eta ori jakin nebanean bera ikustera eta laguntzera joateko gogoa etorri jatan, Jaungoikoaren zerbitzutarako irabazi neinkela pentsatuz. Eta ori Jaungoikoagandik lortu al izateko, Paris'tik Rouan'era dagozan 28 lekua -150 kilometro— oinez, ortotzik, eta ezertzo be jan eta edan barik ibilteko gogoa etorten jatan; baina gauza oneri buruz otoitz egiten nebanean, asko bildurtuten nintzan.

Azkenean Domingo Santuaren eleizara joan nintzan, eta an alan ibiltea erabagi neban; eta Jaungoikoa tentatzeko bildurra kendu jatan.

Baina urrengo egunean, urten bear neban goizean, jazten asi nintzala, ain bildur andia etorri jatan, ia ezin jantzi nintzala uste neban. Baina burruka ori gora-bera etxetik urten nintzan, eta Argenteuil erriraino iraun eustan... Baina gero bildur ori joaten asi jatan, eta pozez beterik landa areitan zear pozez deadarka asi nintzan, eta Jaungoikoarekin berba egiten, eta abar.

Gau aretan eskale bategaz egin neban lo txiroetxe batean. Egun aretan 14 lekua egin nebazan -75 kilometro!!!

Urrango egunean lastategi batean lo egin neban, eta irugarrenean Rouanera eldu nintzan. Eta aldi guzti onetan jan eta edan barik iraun neban, eta ortotzik, erabagi neban legez.

Rouan'en geisoari poza emon, eta Espainiara joateko ontzi batean sartzen lagundu neutsan".

INKISITOREAREN AURREAN

Rouan'dik Paris'era itzuli nintzanean, Kastro eta Peralta'rekin jazo zanagatik, surru-murru aundiak sortu zirala aurkitu neban, baita inkisitoreak dei egin eustala be.

Nik, geiago itxaron barik, inkisitorearengana zuzeanean joatea erabagi neban, nire billa ebillela jakin nebalako. Inkisitore onek "Gure Maisu Ori" zuan izena, Domingo Deunaren frailea zan. Joan nintzan, bada, berarengana, eta auzia laster garbitu egiela eskatu neutsan, urte aretan San Remigiotan, filosofia ikasten aste-ko gogoa neukalako. Ordurako auzia garbi euki gura nebala, esan neutsan, gero ikasketai obeto begiratu al zaiteko.

Baina inkisitoareak ez eustan barriro deitu, au bakarrrik esan eustan: egia zala niri buruz berba egin eutsoela, baina ez ebala garrantzizko gauzarik ikusten, eta abar.

Andik laster San Remigio eguna etorri zan, erriaren asieran izaten dana, eta filosofia ikasten asi nintzan, Maisu Joan Peña'ren ardurapean.

Eta asi aurretik erabagi au artu neban: Jauna serbitzeko erabagia artuta eukenak zainduko nebazala, baina ez lagun barririk aurkitzen ibilli, onela obeto ikasi al izateko".

Eta ikasten asi nintzanean, Bartzelonan gramatika ikasteen etorten jatazan tentaldi bardiñak etorten asi jatazan. Eta eskola entzuten neban bakotxean ezin nintzan adi egon etorten jatazan ainbeste espirituzko gauzak.

Eta onela eskola gitxi aurreratzen nebala ikusita, joan nintzan nire maisuarengana, eta esan neutsan ez nebala eskola batera be utsegingo ogia eta ura jan-edateko neukazan bitartean. Eta erabagi au eginda, orduz kanpo etorten jatazan tentaziño guzti areik itxi ninduen.

GOIKOETXEA IÑAKI. S. J.



IKASLEEN "UZTAROA"

Sasoi ederrean gagoz. UDA ederra da.

Baita ere, gazte askoren UZTAROA, beste modu baten esanda, "UZTA" artzeko egoera, Ikastaro-Urteko saria artzeko mende edo garaia.

Batzuk ez dira arduratzen asken ordura arte, orduan kezkatzen dira, asken orduan ez dakiela ezer ta euren burua jakituriz betetzeko laguntasun apur bear dabela.

Zertarako? Udea ondo emoteko Kulapebarik, euren sendian aurrean ondo agertzeko ta jentearen aurren ere bai.

Ikastaro-urtean ezer ez badabe egin, zer egin leike?

Euren burua konpontzeko, jakituriagaz batetzeko, geiago jakiteko, buru ori ZIRIKATU edo Akullatu "Afetamiñakin", buru ori bizkortu denbora gitxian. Azkenean IKAS-AGIRIAK edo notak onak izan daitezcan.

Afetaminak eta beste osaki batzuetan ere bai, zer egiten dabe gazteen buruetan?

Lenengotan AKULLATU apur bat, bai, baiña gero?

Mutil batzuen sasoirik onenean EZEZTATUTA gelditzen dira.

Gazteen artean zantzu edo ZIGILU ederra ipinten dabe.

IRU GAZTE ONDATUAK NEURE INGURUAN

Gorago idatzi dotena EGIZTATZEKO, ona dakart IRU sasoi mutil gazteen egoera.

Sasoi ederreko mutillak, esateko aldi oneneko mutillak deuzetuta, notin bezela.

Irurak neure inguruan bizi dira, eun neurkin barruan, nere Bilbo'ko auzoan.

Egunero, nere lan-maitik ikusten dodaz.

Zer dala-ta? Ogei ta amobost urteko mutil ederrei iñok lagundu bear kalean ibiltzen, ez dira gauza bakarrik ibilteko, umetxoak bezela beste notin batekin ibilli bear.

Zer jazo zan ba? Euren IKASTE DENBORAN "AFETAMIÑAK" edo beste osaki batzuetan artu ebezelako, auren burua argi ta garbi eukiteko, azterketa sasoiaren edo egunean.

Ez da txantxetako. Ori ZORI-TXAR aundia da olakoak jausten diran etxean.

Gazte eta gurasoei diñotzuet, ez dagiela zuen semea-alabak ZIRIKATZEKO txarrikeririk artu, nai eta ez ondo urten azterketan.

Gauza au tamalgarria da, gauza onik ez dakarrelako.

NIRE DENBORAN OLAKO ZIKINKERIRIK GABE IKASTEN ZAN

Irurogei urte inguru dira, urtetxoak. Aldi aretan ez egoan olako osakirik gure kirioak zirikatzeke, ez bear be olako ZABORRARIK. Ez giñan beste mundokoak, aragizko ikasleak eta jarraitu idazkitxu oneri zelan ikasten genduan, txarrikeriko ZABORBARIK gabe.

Errepublika denbora zan, erreljiosoak edo egiteko bidean gengoan, MIREN'en ELKARTEKOAK edo MARIANISTAK giñan.

Errepublika sasoiaren, irakasketak egiteko erreljioso etxeetan agertu zan, TITULUA bear zala erreljiosoen etxeetan IKASLE edo Maixu izateko.

Geure ikasketak egiten gengoan ogei gazte inguru, 18 edo 19 urte inguruko gazteak.

Orduan MAIXU izateko edo TITULUA artzeko iru urte bear ziran.

Gure mutil taldeak geienak adin edo edade batekoak giñan.

Zer erabagi genduan? Iru urtean egiten dan MAIXUTZA urte terdian amaitzea, ogei urteaz MAIXU izateko.

Birritan asmau barik, asi giñan geure lana egiten, jo ta kee egiten.

Geiago barik, geure GOGOIA betetan, ta baita egin be.

Iru bider joan giñan Segovia'tik Avila'ra azterketak ateraten. Bakotxak amasei liburu eroaten genduzan, guztira 320 asignatura edo liburu guztion artean.

MAIXUTZA amaitu genduan urte ta erdian, baiña, sekulako garaipenagaz ezelako KULEPERIK atara barik.

A izan zan gure poza. Asken aldian, SARITZAT bezela egun bi emon genduzan, Avila'tik Eskorial'era joanda, OROIGAILUAK ikusten. Gure pozgarria, guretzat ordainketa onena ta pozgarriena izan zan.

EZIKETA

Zertarako dakardaz ona gure azterketak? Jakin dai-zuen bai gurasoak ta bai ikasleak, ez dala bear, nai daben gazteak ikasteko OSAKIRIK borondate ona baiño. Gura izatea baiño, jakiña, buru apur bat eukita.

AGE QUOD AGIS - EGIN, EGIN BEAR DANA

Laterazko esaera au geunkan guk buruan sartuta.

Orixe egin bear zala eta BORONDATE onena ipiñi, dana ondo urten zan.

Azkenean OGEI urtegaz MAIXU biurtu giñan talde guztia, ezelako KULEPE barik; pentsau be ez. genduan egiten olako agiriak atera.

Ikasi egin bear zanean, IKASI, gogor, buru-belarri, jo ta kee; jolas tokian, bai pelotan edo bai fulbolean bardin, zeñek geiago egin, zein trebeagoa izan, ezelako asarrerik izan barik.

Ibiliaidiak egiten joaten giñanean, Guadarramako ton-torretara, asko ta arin ibiltzen giñan, egun geiena ibiltzen, atsedean apur bat arteko, asko geiago ez.

Onelan ezagutzen genduzan Guadarramako TONTOR guztiak.

Etxera biurtzen giñan gure birikiak sendotuta, aizez beterik, baiña zelako AIZEAZ, garbi-garbiaz, onelan, ez genduan eukiten ikasi ta ikasi egitea, baiño gutariko edozein gauza ulertzen ez ba'gendun batek, Bata bes-teari laguntzen.

Onela AZTERKETETARA joaten giñan ZIURTASUN osoaz aprobatuak izateko, eta geienetan IKAS-AGIRI onena izateko.

Aldi bakoitzean eroaten genduzan AMASEI inguru ikaskai edo liburu guztiz IRUREUN asignatura, eta biurtzen giñan ikaste-etxera, ezelako KULEPE barik.

A zan poza, ez gu bakarrik baita gure nagusiak ere, naita agertu ez oneik, eurentzako izugarritzko poza izaten ei zan, geroago jakin genduan.

ASKEN URTEAN JAZOTAKOA

Zori txar bat euki neban 1932'garreneko abustuan. II onen amabian gaixo jausi nintzan, orduan esaten yakon gaix bategaz: GASTRIKAS. Orduan ez agoan osakirik txartasun ori arin osatzeko. Berrogei egunean ilda bezela egon nintzan oean, UR BERO-BEROTAN bustialdiak artu eta oean geldi.

Iraillaren ogeia eldu zan. Niretzat, askenengo azterketak IRU liburu faltan, TITULUA aterateko.

Zuzendariak ez eban gura ni Avila'ra joatea, porrot eginda etorriko nintzalako. Nik osteria baietz.

Azkenean neureagaz urten neban.

Iru liburu oietatik: Geografia, Sobresaliente, Musika, Notable eta Matematicas, Aprobado.

Au dakart ona, ESATEKO gaurko ikasleei, eta gurasoei, ez dala BEAR ZABORRARIK edo AFETAMINARIK, urtean ZEAR bear dan bezela lana egin ezkerro, orixe egin bear leukie oraingo gazteak eta ezelako osakirik artu gabe, urtego leukie aurrera.

Zergaitik ez dabe artu bear?

Horago ikusi dogun bezela KALTEGARRI dalako beti.

Sartu ondo buruan bai gazteak eta bai gurasoak.

Ikastetxera eldu nintzanean Zuzendariak besarkada bero bat emon ondoren, nire EGINTZA bikaiña gaitik, eta beste lagun guztien aurrean ZORIONA emon eustan eta agertu alkarte guztiren POZA.

OGEI URTEGAZ MAIXU

Ez dot ipinten emen IRAKASLE, MAIXU baiño.

Zergaitik? Niretzat MAIXU itz onek asko be geiago esan nai daualako. Ni nazela txikien edo Ikasleen: Adibidea, Zuzendaria, laguntzaillea Gidaria, bai berbetan, bai kiñuetan, bai egintzetan, urrats danetan bide ona emon.

Nere naia, neure denbora guztian izan da GALBIDERIK ez emotea ezelan ere gure aurrai edo Ikasleai.

Nire xede edo elburua maixotzarako, Bizkaiko erri-txo bat izan jan, zuzen esanda YURRE, gaur egun IGORRE.

Orduko illeko SARIA izaten zan 150 pta.; ta ori ZIUR eukana zoriontsua zan.

Orduan ez genduan ASMETAN gaur lako grebarik, egun bat galdu barik emoten eskolea ta ganera pozik, gauzarik aundiena egiten gendua lakoan; ta alan izan be.

Egiterik onena da ba, txikiei bide zuzena erakustea eta artez bidean ipintea euren bizi guztirako.

Lan ori egiten zan BURU-BELARRI, poztasunik aundienagaz.

Jolas denboran jokatzeko amorru guztiaz bai mai-xuak eta be bai ikasleak. An ez zan errespetatzen, nor, nor zan.

Golak sartu bear zirala ta aurrera.

Izerdi galantak botata joku lekuan, gero barrero kaxolara. Emen beste gauza bat zan.

Maixu, Maixu bezela, edo tokian eta besteak apal, apal bere lana onduen egiten, baiña bildur barik.

Ezekianien atzamarra altzau ta itandu be bai: Au zelan da, Maixu?

Astean bein biltxen giñan, gela baten danak batera. EUN TA IRUROGEI inguru.

Emen egiten ziran danentzat OAR bereziak; zelako jokabidea eroan bear daben txiki eta aundi, nai etxean, nai ikastolan, nai jolaz denboran eta eleizan be bai.

Ez geunkan iñoiz ARPEGI illunik ipiñi bearrik.

Noiz baiten olakorik jazo ezkeru, orduan berari deitzen jakon bakartadean, aurrez aurre arpegira esaten jakon bere ARRETA txarra edo jokabidea.

Ta ori naiko ez ba'zan, gurasoei deitzen jaken, berealaxe zuzentzen zan OKERKERIA edo okerkeriak.

Nik ikusi dodan lez orain ez da egiten ikastoletan OARRIK, eta zelan nai dabe Irakasleak zuzen ibilli datezan mutiltxoak?

Abereak be ASKOTAN esanda egiten dabe guk gura doguna, txakurrak be bardin eta onelan abere askok JOLAS-TOKIETAN (Circo).

Mutillak be, oarrrik egin ezik, abereak baiño txarrago jarten dira.

Orain bi illabete ez dala, atsedean apur baten nen-goan Bizente Deunaren enparantzan.

Mutiko kozkor bat loraarrea zartzen zan eta neure ondoko andra batek esan eutson: Mutiltxu ez zaitez sartu leku orretara trizkatu egiten dozu lorategia ta.

Mutiltxoaren erantzuna: MIERDA PARA TI. Kaka zuretzat.

Ikaratuta gelditu giñan andrea ta biok. Edozeiñen zoztorren ondoan ixuldi egingo bear gara.

Orain ez dago BEGIUNERIK ez etxeoarentzat ez kanpokoarentzat Mutil orrek ez dau atera bere burutik gauza ori.

Nire ustez ori etxean edo kanpoan askotan entzun daualako.

Ta nagusiak olakoak esan ezkeru, besteak lenengo-ko eran edonoren aurrean esaten dau.

Orregaitik Irakasleak, Maixuak, Gurasoak kontu aundia ipiñi bear dabe zer esaten daben olako kaskar baten aurrean.

Aldizkari baten irakurli dot orain datorrela ERA-KUSTE BERRIZTE bat.

Ori ondo dago, baiña, MAIXUAK berriztuten ez ba'dira, EZITEN ez badira, BERRIZTE orrek ez dau gauz onil ekarriko gure ikaste-etxeetan.

Emen, MAIXU onak egin bear dira, baiña zelan?

Urrengo Idazkitxuen alegiña egingo dot azaltzen. Agur.

ETXEBERRITAR I.

IDAZKOLA

ZER'EN ZENBAKIAK

Irakurleak eta liburutegietan ZER zaintzen dabenak jakitun izan daitezcan oar au egiten dogu:

Orrilla-Maiatza: Zenbakia 130

Bagilla-Ekainilla: Zenbakia 130

Uztailla-Dagonilla: Zenbakia 132

Ipiñi begie ba, Bagillari dagokionean 131, eskuz, gero errakuntzarik izan ez daiten eta, iñoz jaso dan lez, deika ibilli-bearrik izan ez dagien, zenbaki bat falta jakelakoan.

ZER

OMENDUA IZAN NAZ

Eta pozgarria ete da? Nik baietz uste. Gaur, egia da, edozeiñi egin oi jako olako jai alai bat, egilleak eta artzailleak egiazko poz-bitsetan itxirik. Au, urteetan lanari ekin dautson batentzat —ezin daiegegu uka— gogo ta kemen ekarle bizibizia da. Eta edozeiñek bear ba'ditu olakoak, askozaz be geiago euskal literaturan, euskaldunari aria emon eta arnasaz girotzen lanean diarduanak.

Nik ez dakit nundik sortu zan pentsamentu ori; itandu izan dot, baiña ez dauste adierazo nai izan: Udaletxeak, erri xeeak, kombentuko fraille lagunak? Ez dakit. Ez usteko zerbait izan zan niretako. Jai bitartean, eta gero, sarri itandu dauste, zelan artu neban omenaldia, eta nik beti erantzun dautset, prentsa, irrati ta telebistakoai, lau-lau erantzun be: "Oso pozik!" Esango dot zergaitik.

Iru eguneko omenaldia izan zan, igarotako maiatzean, 11, 12 ta 13'an niri egindakoa.

Lenengo egunean, egunez, arratsaldeko zortziretan, Zornotza'ko Zine-Klubean, euskal literaturari buruzko mai-ingurua, Juanjo Zearreta, bertoko semea, moderatzaile zala, areto zabal ederra jentez beterik egoala. Mai-ingurukoan esku artu eben Andolin Eguzkitza, Santurtzi'ko semeak, Andu Lertxundi oriotarrak eta Jon Kortazar mundakarrak; irurok ekin eutsen ordu bete ta geiagoz, batez be euskal nobelagintza ikuspegi askotatik ederto jorratuz.

Ondoren, olakoetan oitura danez, entzuleak izlari. Eta ez edozelan, jakintsu baiño; ez neban nik uste Zornotza'n, euskal literaturaz, ainbesteraiño jakitunak genduzanik. Olako jardunetan agertzen dira, geien baten, errikoen balioak; ni neu pozik geratu nintzan bai izlari jakintsuen ekiñarekin eta bai erritar itaunerantzunlarien saioarekin. Zorionak zornotzarroi!

Bigarren egunean, barikuz, arratsaldeko zortziretan, Zine-Klubean, jentez naikoa ondo, LAUAXETA filmea. Nik zatika ikusia neukan, ez osorik alan be. Ez ninduan bete. Adiskide kutunak giñan. Gerratean, bost-sei bider alkarregaz itz-egin genduan Kanpantzar, Intxorta, Elgeta ta Basalgo'n. Euska Jaurlaritzak bialduta, ango gudari-taldeak ikustera etorri oi jakun. Nik eta arek, berbetan, gudua baiño euskal olerkia geiago: "Eguna"-rako olerkiak idazteko esaten eustan.

Lauaxeta, izan be, etzan "militar", olerkari baiño. Eta gerraldian be, iskillu-otsa ez, baiña poema txanbeliñak geiago ebiltzan aren arima ederrean. Filma orretan, ostera, aitatu besterik ez dagie filmagilleak. Lur, itxaso ta arma-ots, olako txatal batzuk, umeak erbestera eroateko (eta nik uste dot orretan ez ebalaparterik artu) arazoak-eta datoz pelikulan.

Pelikula ori mamintzen ziarduelarik, ni aren olerki guztiak batu ta osotu neban Lauaxeta'ren "Olerki Guztiak" liburu mardula amaitzen nengoan. Oso bikain sartu leikean pelikula orretan poeta bezelako zerbait, maian olerkiak egiten, edo-ta itzaldiak, edo-ta sariak artzen, aren liburuen argazkiak, aren poema laburren bat irakurri... Gauza ezerezak, baiña Lauaxeta'ren nortasunaren alde asko diñoenak "Lauaxeta" pelikulan ez dator olakorik, ezta Gasteiz'en fusilatu ebenekorik be. Pilma ori, beraz, ez jatan atsegin izan.

Irugarren eguna, maiatzaren 13, larunbata, aundikiro ospatua izan zan. Goizeko amaiketean, Larra'ko eleizan, meza abestua, ogeita bost bat eleiz-gizonek amana, koruan abeslari Zornotza'ko Korala ta anboian izlari ta ni erdiko nintzala. Urteeran, eleiz-aurrean "Udabarri" k uztaia egin eban, ondoren ainbat dantza-mota euskaldun dantzaturik. Jenteak gero, goiko aretora orduko, be-barru biran urteak nik idatzi ta argitara emoniko liburuen erakusketa txeratsua.

Meza, dantza ta berso-saioai ezer moztu barik, niretzat eta emen ziran guztientzat omenaldi Egintza (acto académico) deitua izan zan bikain-bikaiña, bertso ta itzaldiz ornidua, an ziranak gogotsu txalotua.

An aurkitzen ziran, egin-egiñean be, "Eguzki-alde" areto nasai argitsuan, jente geiago ezin artuz betean, Eusko Jaurlaritzan Euskal Kulturaren buru dan Jose Arregi, Bizkaiko Foru Aldundiko buru José Alberto Pradera, bertako Kultura arduradun Tomás Uribe-Etxebarria ta Ina Etxebama, Zornotza'ko semea, Zornotza-Etxano'ko alkate José Alberto Gurtubai, Eusko Jaurlaritzako izkuntz-politikan arduradun dan Mari Karmen Garmendia, Bizkaiko Batzar Nagusietako buru Anton Aurre, Euskaltzaindiko buru-orde Juan Mari Lekuona eta bertoko idazkari-orde José Luis Lizundia, Euskera-zaintza'ko buru Lino Akesolo ta idazkari Gaztañaga'tar Jesús, eta abar, eta abar.

Omen egintza nagusi aurretik bertsolari bik, J. Azpillaga'k A. Lopategi eta Jon Enbeita'k girotu eben gauzea, omenduaren lanak bereziki bertso biribil gozotan abestuz. Jarraian, J. M. Lekuona'k mintz-aldian nire olerki-lana luze ta sakon aztertuaz. Olerkia ta olerkaria, erti-lana ta olerkiaren osagaiak aztertu dauskuz; nire poemak aztertzen ditu nire "Goiznabar" eta "Nere baserria" eskuetan ditula, metrika, iruditeriak, eta gaiñekoak. Gudarien inguruko poemak eder jakoz eta "Ur-egalean" deritxona irakurten dau. Sollube aldean dabil idazlea, gudarien kapellau, ta Meñaka'tik laster, gorpu bat aurkitzen. Bost aapaldiko poema da ta J. M. Lekuona'k bi oneik irakurten:

"Muiñotik jatsi naz, ta, ur-ertzean etzana,
gudari bat daurkit. Lo ete? Ala illikan?
Bedar ogean datza dirdai eguzkitan,
esku biak bular gaiñ, bits-jaroz ezpana.

Atxur-zartaka dot lur-sabela edegi
ta gaztearen soiña bertan dot eratu,
lore zuriz ta lurrez dana dot apaindu.
Jausi ba'nendi, esku on bat nitzat bedi".

Entzuleak orduan, ni lenengo nintzala, buru-makur, negarrari emon eutsoen. Barruak sentitzen ebana begiak adierazo. Sarri egin oi doguna.

Zornotza'ko Udaletxeak, Julen Urkitza'k gertatuta, A. Onaindia'ren "Olerki guztien Bilduma" izenez, argitaratu dauan liburuari ezarri dautson itzaurre zabal sakonean, onela diño: "Aita Santiren olerkigintza lan mardula da eta luzaroko ahalegina. 1929an hasi eta 1988 artekoa. Pentsatzen dugu, bizi-bizi dagoenez, aurten ere abesten diharduela Larreako galeperrak. Hirurogei urte euskal poesigintzari etengabe emonik". Nire poema liburu biak —"Goiznabar" eta "Nere Baserria"— atsegin jakoz, bigarrena batez be.

Luzatu barik, oneik itz-egin eben: José Alberto Gurtubai'k, J. A. Pradera'k, Mari Karmen Garmendia'k,

Tomás Uribe-Etxebarria'k, Anton Aurre'k eta Josu Legarreta'k, guztion esanak nik koroatuaz. Akademi-egintza zan eta euskeraz, eta emen erakutsi eban bakotxak gure izkuntzaren ederra, izen, izen-lagun, aditz-joko, joskera gozo eder-ederrean. Billera aren bikaiña!

Azkenez, jakiña, bazkaria emengo Propi jatetxean, bertsoz ta kantuz gatz-ozpindua. Eta gabeko bederatzietan, Ixerbeko Kiroldegian, Donostiko "Zortziko" dantza taldearen ikuskizuna.

Omenaldi oni bere jasa emoteko, naiko zabalkunde egin zan egunerokoetan, irratan eta telebistan. Udalak bere aldetik, ainbat zabal-paper osotu zituan: bertoko seme Laka jaunak egindako orma-irudia, egitaraua, nire euskal idazlanen Bibliografia, oso-oso, eta nire "Olerki guztien Bilduma", 315 orrialdekoa.

Udaletxe ontako ziñegotzi Mikel Etxebarriak au irakurri eban, akademi egintzaren ostean, Zornotza-Etxano'ko Udalak iru gauzok erabagitzen zituala:

1. Aurrerantzean, Zornotza-etxano'ko seme kutun zala Aita Santi Onaindia.

2. Santiago Onaindia ikerketa Beka, 800.000 pezeta-koa, urte bitik urte bira emongo dana.

3. Zornotza'ko kale bati Aita Onaindiaren izena emon. Au irakurri ondoren bertoko alkate A. Gurtubai'k onela iñoan "Amorebieta Etxanoko Udalak AITA SANTI ONAINDIA gure herriko seme kutuna izendatzen dau", agiria emon eutsan.

Eta nik, toki eder onetan 47 bat urte daroadazan onek, oraiñarte lez lanari ekiñez, biotzez eskertu nai ditut omenaldi onetan esku artu dauan Zornotza'ko Udal eta erria, eta bidenabar au bide bertoratu diran beste guztien adeitasuna. Esker ona, beti eder.

AITA ONAINDIA

ASKATASUNARI-BURUZ GOGOETA GEIXEAGO

Joan dan illeko zenbakian, euzkotar abertzaleon politikagintzaren elburu bakarra, askatasuna dala esan genduan. Eta ori, atutzen ari yakula.

Euzkadi'ren Askatasunaren alde eta ez Estatuto baten alde il zirala gure gudariak.

Orduan ere Estatuto bat bazala esango dauts norbaitek. Baietz, erantzungo dautsat nik, baiñan "gora Euzkadi Askatuta" deadar egiñaz il ziran aiek, ez zirala Estautoagaitik il, Askatasunagaitik, Euzkadi'ren Askatasun osoagaitik il zirala erantzungo dautsat.

Estatutoa, guretzat, Askatasunaren bidean mailla bat besterik ez da. Eta, ori, aspaldi ontan ez dabe, zori madarikatuz bi zatitan puskatutako gure alderdi abertzalearen buruzagiek argi eta garbi esaten.

Orrela, gure jende euskotarra, batez ere gure gaztedia, sentipenez españiar biurtzen ari yaku. Gure denbotan, zearo ezberdiña zan jende abertzalearen sikologia. Bazan orduan ere Estatuto baten, guraria, baiñan abertzale guztiek ulertzen eben Estatuto ura Askatasunaren bidean urrats bat besterik ez zala. Ori irakatsi ere irakasten bai eben gure buruzagiek atsedetik gabe.

Orrek gauza bat adierazten dausku. Euskadi'n gaur, era negargarrian zatitutako gure Alderdi maiteko burukideen lenen-lenengo eginkizuna, ereintza dala: Abertzaletasunaren ereintza.

Arantzadi'tar "Kizkitza'k badau izen orrekin liburu bat: EREINTZA, "Siembra de Nacionalismo Vasco" erderaz. Berriro irakurria izatea ondotoxo merezi daun liburua.

Gaur, Españi'k edozein kirol-saioan galdu edo irabazi egiten ba'dau "irabazi egin dogu" edo "galdu egin dogu" batere kezkarik gabe esaten dabe gure abertzaleek, gazteek batez ere. Epeltzen, lurruntzen, ezereztan ari dala Euskadi'n euskotarren abertzaletasuna!!! Ereintza naro baten bearrean aurkitzen garala!!!

Ereintza, irakasleen eta profeten lana da; ez da agintarien lana.

Biotza odoletan dogula zatiturik ikusten dogun, gure Alderdi maite sabindarrak, gaur, profetak bear dauz, ez agintariak, Euzkadi'ren onerako; baiñan gure Alderdi itunki zatituaren bi zatietako burukideek, agintari izan gura dabe, ez profeta.

Izan ere, ori izan bait zan zatiketa doakabe aren sustraia: profeta ez baiño agintari izan-naia.

Askatasunerako bidea bide gaitza dala diñoskue. Ori badakigu!

Erri txikia gera, eta etsai aundiak dira guretzat Españi eta Frantzi. Askatasuna bat-batean lortzerik ez dogu. Baiñan Euzkadi'k bere erritasuna gordetzen ba'dau, lortuko dau askatasuna. Eta gordeko dau erritasuna, errikide danok, euzkotar guztiak, Euzkadi Españi ez dala, Euzkadi Frantzi ez dala, Euzkadi Euzkadi dala benetan sentitzen ba'dogu.

Eta sentimen ori sentiaraztea, profeten lana da.

Gaur ez gaude Askatasuna ezkatzeko eran, Euzkadi'n bertan askatasun-zale ez diranak geiegi bait dira. Jende-mota ori kanpotik etorritako jendea dala? Berdin da. Euzkadin bizi dira, eta oiek emendik bidaltzerik ez dogu. Ez yaku zillegi ere. Oiek euskotartu egin bear doguz. Eta ori Profeten lana da. Gaiñera, españizaleak Euzkadi'n ez dira danak atzeritarrak.

Ezin daikegu, gaur, autodeterminaziorik eskatu ere, galdu egingo geunke-ta. Naparroa beintzat Euzkadi'rentzat zearo galdurik geldituko litzake.

Gaur, H.B.-k bakarrik eskatzen dau emen autodeterminazioa. Ez ote daki, Naparroa'n jende geiena, eta jende asko Bizkai'n eta Araba'n, eta zer esanik ez Iparraldean, baiña baita Gizpuzkoa'n ere, GAUR Askatasunaren aurka irtengo litzakigukela? Bai, badaki; baiñan orregaitik ez yako axolarik H.B.-ri.

H.B.-k autodeterminazioa eskatzen ez dau askatasunik lortu nai. Euzkadi'ren barruan, "kontradikzioak", "aierkundeak", "aurkatasunak", itz batean esateko, zalapartak, gorrotoak, borrokak sortu gura dauz. Eta, orrela, "Iraultzarako giroa prestatu".

Une ontan, munduko Alderdi Komunista guztientzat bezala, Euzkadi'ko Alderdi Komunista'rentzat eginkizunik garrantzitsuena "iraultzarako giroa prestatze" ori da.

Nola giro ori prestatu? "Euzkadi'n gaur dagozan "kontradikzioak" bizkortuaz eta oraindik ez dagozanak sortuaz", erantzungo dautsu Euskadiko Ezkerrak. Entzun, bere egitamu edo programa ofizialetik artutako itzak: (erderaz, jakiñan, gure komunistek erdera besterik ez bait dabe erabiltzen): "Intensificar las contradicciones ya existentes en Euzkadi y crear aquellas que aún no existen".

Badogula Euzkadi'n profeta bikain ausarditsuen bearra!

Abertzaleok bezain zatituak dagozala komunistak ere Euzkadi'n, esan eban atzo bertan Tolosa'n nere adiskide aundi komunista batek. Ez da egia.

Eusko-komunisten zatiketa, -E.E. alde batetik, H.B. bestetik,... Mao'k asmatutako "taktika" edo "jardun-kerak" baten araura egiña da. Abertzaleon zatiketa, alde-eratik, euskotarrok Euzkadi'ren kalterako egin dogun zorakeririk geldoena eta zikiñena gerta yaku.

Agintari-gai geiegi eta profeta gutxiegi izatea, izan dogu Euzkadi'ren gaitza. Guk berriz profetak bear, ez

agintariak. Agintari izateko ia edozeiñek balio dau, gure Alderdiaren barruan, agintaritzak, ez bait da pertsona baten eginkizuna, talde edo "ekipo" batena baizik; eta, azken-unean, Alderdiarena bera, Sabiñ'en pentsamenduan, Alderdiko oiñarri jendearena.

Profeta-lana ordea, lan neketsua da, oso txarto saritutako lana, eta arrisku aundikoa. Agintari izan zalako ez baiña, Profeta izan zalako jausi zan Sabin bera espetxera.

Gaur bertan, deabruaren gozamenerako eta eusko-askatasunaren etsai guztien atsegiñerako zatiturik dakusgun Alderdi'ko bi zatien burukideek agintaritzak itzi ta profetaritzara joko ba'leukee, besterik gabe bat batean egingo litzakigu Alderdiaren batasuna.

Bijoaz agintari izan gura dabenak, etxera, -agintaririk onena, geienetan, agintari izan gura ez dauna izaten bait da—, eta betoz profetak!, oraindik euzkotar ez dan Euzkadi'ko jende-multzo ugaria euskotar biurtu dagiguen.

Orduan bai, orduan danok eskatuko dogu pozik Elizaren dotriña eta Nazio Alkartuen legea dan "aute-determinazioa", "nork-bere-buruaren-erakuntza".

LATIEGI'tar BIXENTE

ZER

ALDIZKARIA

- **ILLEROKOA** (MENSUAL)
- **BIZKAIERAZ IDATZIA** (EN BIZKAINO)
- **ERRITJAKINTZAREN GAIAK** (MATERIAS POPULARES)
- **IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK** (LECTURA FACIL)
- **ARAZO SAKONAK AZTERTUTA** (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETUZATTE!

ZER
EUSKERAZALEAK

de 14-2.º - BTTBA 01

LIDERTASUN UTSAREN GAIA, EZ

Urte onetako Otsaillaren zenbakian, Kamiñazpi'k izenpetutako artikulo interesgarri bat agertu jaku. "Aurrelariak" dau izenpurua. EAJ'ren apurketari buruz itz egiten dau.

Gai berari buruz, zeozer esateko daukodala uste dor. Ez naz EAJ'ren jarraitzalea, ezta EA'ren be. Maite dot gure Euskalerrria ta bere auziak kezkatuten nabe. Kanpotik eztabaideak ikusi dodaz. Orregaitik nire irixiaz balio apurra eukiko dauela, uste dot.

Banaketa au, lider bi eukiteagaitik sortu dela diño Kamiñazpi'k. Onetan ez nago ados. Auzia lidertasun utsa ez da izan. Naiz ta, beti lez, norberekeriak naastutak ibilli dira, ez dira izan gauza osoa.

Auzia sakontasunean aztertuten ba dogu, pentsakera bi dagozala ikusi geinke. EAJ'renak tradiziño jarraitu bear dela uste dabe. Orregaitik aldundiei almena eutsiten dautsee. EA'renak barriz, almen osoa Jaurlaritzarentzat izan bear dala aldarrikatu dabe. Leenengoen eritxia, Euskalerrrian beti egin danakin adosagoa dago. Bigarrenak abertzaletasun utsaren irakaspeni jarraituten dautsee.

Pentsakera bi dagozan ezkerro, alderdi bi sortu bear dira. Ta onetaz ez dot geiagorik esango. Iñor epaituteko ez naz gauza ta.

Baña pertsoneri eta alderdiei bakean utziaz, banaketa onen ondoren jazo dana adieraziko dot.

EAJ'ren indarra gitxitu da, naiz ta auteskundeetan alderdietatik indartsuena urten. Beraz PSOE'ren lagun-

tza artu bear dau. Gaur EAJ eta PSOE'k zatibanatuten dabe almena Jaurlaritzan, Bizkaiko ta Arabako aldundietan eta udal batzuetan.

PSOE'ren elburua dana aldatzea da. Alfonso Gurrak berak esan dau: "Vamos a dar a España una vuelta que no la va a conocer ni la madre que la parió". Oneexek ziran bere berbak. Aspaldian irakurria daukot sozialista prantzes batek esan ebana. Auxeda: "Katolikoak semeak euki dagiezala, gero geuk aziko doguz". Ori izan da ta izaten da bere betiko jardunbidea. Tamalez Eusko Jaurlaritzan eziketa salla sozialistei dagokie.

Gauza asko aldatu gura dauskue. Daukogueunak kendu ta barriak sartu. Beti euki doguzan ekanduak, izakereak ta siñismenak ezeztatuten diardue. Gure izakera kristaua —beraz, jatorra— marraztatu gura dabe.

Orregaitik, gauzak kanpotik ikusiaz, alderdien eztabaideetan parte artu barik, Euskalerrria guztiak galdu dauela esan al dot. Bai alderdi biok. Baita be beste alderdikideak garanak.

Bigarrenez diñot: ez naz alderdiei, ezta liderrei be, egin bear dabena esateko beste. Eurak jakingo dabe neuk baño obeto. Baña batek ta besteak pentsatu dagie-la zatiketa onegaz, danak galdu dogula.

Karlista nazan ezkerro, alderdi bien aurkakoa, norbaitek pentsatuko leuke, alkar borroka orren aurrean, poztuten nazala. Ez adizkideak, ez. Nigan beintzat, alderdi-gizonaren gañean, erriko semea dago. Erria galduaz doala ikustean ezin naz poztu.

IBAÑEZ KARLOS

EUSTEA

Izadia Jaungoikua sortu-arazi eban gizadiaren gozamen eta onerako. Mendiak, oianak, landak, zeru-goiena, itxaz-errekak, bizidun izakiak eta diran guztiak, gizadiarentzat egin ebazan. Gizonari aukeratu eutsun jaun da jabe. Au diñosku, defedunei, Asiera edo Genesis deritxon Itun Zarreko idaztiak.

Luzaroan, antxiñatik oraingo aldiak-arte, jatorrizko tankeran irauñ-arazi da inguro-giroa ta izadiak bere edertasun eta ugaritasuna gizonari ezkeiñi dautso. Lenbizian gizonaren egin-bide edo tresnak oso asi-masizkoak ziran. Izadiak emoten eutsozan igaliak eta arrapatzen ebazan abereagaz, naikoa eukan alikatu ta bizi-al izateko.

Aro artan ez egoan gizadi ta izadi arteko arazorik. Gizonak eukazan lan-tresna banakaz ez leikean kalte aundirik egin izadiari. Ebagi leikeazan bear ebazan aña zugatzak bere bizi-leku edo txabolak atontzeko eta baita neurri barik basabereak eizatu, alikatu ta jantziak egiteko. Izadia bereala azta-bardintzen zan, gizonak ondatu ebana barrero sortu-araziaz.

Luzearen-luze, ludi edo munduko biztanleak ugari-tu izan ziran eta beren gizakundeak aurrerapen aundiak eskuratu euskuzan. Azkenengo eunkada edo mendean batezbe, ikaragarriak izan dira jakintza-sail guztietan lortutakoak. Kimika ta Bizi jakintza edo Biologiari buruz, esate baterako, ainbeste agerpen. Eta zer esango dogu Komunikabidez? Somatu eziñezko maillara eruan gaitue. Irrati ta Urrutikuskiña alde batetik eta egazkintzan egin diran aurrerapenagaz bestetik, Julio Verne-ren amets batzuk txikiak geratu dira. Gaurkoan larogei egunean ludiari amaika itzuli osoak emon leikez, eta bere siñistu-eziñezkoa zan illargira bidaia be, urteak dira egin zala.

Gizakundeak eta bere aurrerapen oneik ondoren oneratsu asko ekarri dauskuez, baiña baita be kaltegarri diranak ugari, Kutsadura sartu jakuz alde guztietatik, batez be uri aundietan. Inguruan arnas-artu eziñezko aizea daukagu. Erreka ta itxaz-alde danak, langintzako ondakin eta arrolioz zikinduta dagoz. Euren uretatik, arraiñak bizi-eziñik, urrutiratu bear izan dabe, ta zarriskotan an bertantxe illotzik geratu dira, uren gañean sabelaz gora kulunka, oltzo edo zezpalak izango ba'lira.

Gizonak oraingo lan-tresnak zearo ta bete-betean erabiliko ba'leuz, izadiari itzalezko kalte egingo leuskio. Basadi zear juañ al izango litzake, tramankulu altsu bategaz, berebil-bide zabalak edegiten zugatz eta izadi-ko edertasun guztiak ezker-ezkuma aldean birrinduta lagatuaz.

Kaltea landaredin baiño aberedin nabarmena izan da. Zantat pizti, batez be elefanteak, leoiak eta beste olakoak ostendu zorrian geratu ta eizea debekatu edo neurritu bear izan da! Beste orrenbeste itxazoan, balea, itxaz-otsoa ta arrain mota batzukaz gertatzen da.

Ondamendi au ikustean, ekologizale-taldeak lurralde guztietan sortu dira egindakoaren aurka, euren asmoa agertzen eta gero ta indar geiago daukie gizartean.

Euzkadi'n be auzi keskatsu ta garrantzizkoa kutsadura dogu. Izurbide edo terrorismoa lan-eza izan ezik, au da gure arazo larriena. Bilbo, Glasgow eta Napoles Europa ko uri kutsadunenetarikoak ei-dira.

Gure artean sortutako ekologizale-taldeak, or dabilta aberriko edertasunak eta inguro-giroa aldeztu naian.

Gaur egunean jo-ta-ke ari dira Leizaran zear, Irurzun eta Andoain bitartean, egin gura daben beribil-bidearen aurka. Aurkitzen dabezan bide guztiak arebiltzen dabez euren asmoa lortzeko. Aita Barandiaran'ek daukan ospea be eureganatu dabe, ta onek idatzitako idazki bat gipuzkoar eta napar agintariei bialdu dautsie; baita Euzko Jarularitza'ko Lendakaria'ri be. Onezaz gaiñera Estrasburgo'ko Lege Biltzarre'ra joko ei-dabe.

Talde "orlegi" oneik (ekologizalei orlegiak deitzen dautsie) Euskalerra'ko irurogetabi mendizale-talde eragin dabez, Leizaran zear jatorrizko ibiltaldi bat jardun-bidez eta argi ta garbi bide orrek inguruari egingo leuskio izugarrizko kalteagaitik aurka egiteko. Leitza'n 2.500 mendizale alkatu ei-ziran eta bazkal-ondoren egingako itzaldian, antolatzaillen ordezkariak esan eben: "Aldundiak jakin daianan lenengo tramankulua ipiñitakoan, bere aurrian eundaka lagun jarriko garala".

Arao ta kezka au ez da Leizaran'koa bakarrik. Toki askotan sortu da. Esate baterako bardin jazoten da Arantzatu'ko Urbia'n. Zelai ta toki zoragarri onetara be bitxabal bat egin gura dabe; ta Aloña-Mendi'ko Mendizale Taldekoak jakin ebeneneko asi ziran aurka, aragozpenak jartzen eta alegiñak egiten asmoa aurrera ez daien eroan.

Egia da izadia gizonarentzat egin dala ta ez gizona izadiarako, baiña orregaitik ez dogu dana ondatu bear baizik ituindu, onura atera, ta aldi batera alik ondoren izadia zaindu ta eutsi.

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER

BERTSOETAN

ALTUNA'TAR JOSU ADISKIDE MAMIARI AZKEN OROIZ

Auzoko ta eskola-lagun izan giñan; beti be adiskide
kutun-kutunak. G.B.

GOIRIA

1

Gure adiskide, Josu Altuna
jun da betiko gugandi;
bere irripar gozo-etzia
ez da agiri iñundik.
Seme langille, argi-zorrotza
galdu dau ziñez Euzkadik,
Euzkera Ama be negarrez dago,
negarrez dana mindurik.

-2

Txiki zanetik ager zan beti
zoli-bizkorra danean;
txiki zanetik itxartu jakon
sugar-txingara barnean;
txiki zanetik-maite mindu zan
Euzkadirekin batean.
txiki zanetik ekin zun gartsu
euzkal-arloan lanean.

3

Biotz gartsudun, eta argidun
euzkal idazle trebia;
itun ta goibel geratu jaku
gure ZER aldizkaria;
Euzkadi eta mundu osoko
mendietan ibillia;
beti gogoan izango dogu
Josu Altuna aiskidia.

-4

Agur aiskide, agur Altuna,
izan zoruntsu zeruan;
zu eredutzat arturikan gu
geratzen gara munduan;
gure Euzkera maite dogunok
beti izango zu goguan,
zuri jarraituz ekingo dogu
euzkera-alde lan zutsuan.

Eibar - 1989

EDURNETXU

Neguko goiz bat da ta
edurra mara-mara
goiko mendian;
baso-mendi, muño ta
solo-baratzak ara
edur-tartian.

Ez da agiri artzairik
alai joten soñua
an gallurrian;
txabola utsik itxirik
artalde dau sartu
etxe zarrarian.

Edurnetxu da; beira
begitik mara-mara
negar-malkoa,
amaren illobira
doa negar eitera
ume gaxoa.

Atzo goizean ama an
itxi eben sakonki
lurperatua,
ituna barrenean
doa bertara ixilik
neskato txikia.

Ixilik t'otzez doaz
urduriz mezatara
andre-gizonak;
jantzi lodiz bilduta
sukalde berotara
aiton-amonak.

Solo-barrendik zear
ume bat agiri da
errian bera,
itun, negar ta negar
dator ume gaxoa
bakarrik bera.

Antxe dardarka otzez
aurkitu dot gaxoa
ate-ondoan;
belauniko negarrez
amatxogaz izketa
ixil-goxoan.

Legunki laztandurik
bialdu dot umia
bere etxera,
il ez zedin txikia
aman antzera.

GOIRIA

Bilbo - 1930

UDABARRITARRA

Egunaz jagi diran txoriak kantari datoz
aizeratuz euren txio ta txorrotxivak,
zozo, bedegarroz aizeraturiko egoz,
eguzkiaren sorreran biziro suzperuak.

Eguna argi ta urdin dator bai, goi-intzez,
udabarritar mintzairazko gorakundean
dirdai, eder-dario, lora ta bedardi mamiñez,
izan-miñezko ernamintze, poztasunean.
Bide barriak, itxarozko belaun gazteetan,
aize, ego, oldozkun barriz elbidetuak
indar barrizko landa, zelai, maitebideetan.
Bizi-ametsez jositako lurra dirudi
lora-eresiz biotz-begietanernaminduak,
ainbat izakiren abots-mintzo agurgarri!

MUNiategi-tar SABIN
(1988)

BARRI ONAREN ARGITAN - BERNADETTE'N BIDEA - BIDAZTIAREN BIDEA

GIZA - BIZITZAN

"Aska baten etzun eban. Eurontzat ostatuan tokirik ez egoan-eta".
 "Ejitorik, Jose jagi, umea ta onen ama artu, eta Israel lurraldera joan zan".
 Eta arein menpean bizi zan.
 Au ez da ba Jose arotzaren semea?
 Gizasemeak, ez dauka burua nun ezarri.

"Boly" errotan, apalik, polito bizitetik,
 "Cachot" kartzela-zuloan errukarri bizitera...
 Bartres'en: "Jainkoak orixe izten ebala ta, ez zala keixatu bear".
 Otsailak 11'n: "Egurra ta azur zarrak batzera joan giñan Massabielle'era".

Bidean: adi egon; alkar ezagutu eta alkarbanatu...
 Nundik gatozan... Geure bizikerea; geure kontuak...
 Geure itxaropenak... Kezkak... Edo ta bildurrak... ala?...
 Nor goaz?...
 Pelegrinaziño onetatik zer itxaroten ete dogu?....

AURKITZEA TA POZA

Etorri zaitezte toki bakar batera, atsedean apur bat artzera.
 Bera, toki ezkutu baztartzan zan eta an otoitz egiten eban.
 Otoitz egin dagizunean, sartu zaite zure gelan, atea itxita gero,
 otoi egiozu an, isillean dagoan zure Aitari.
 Onen itzaren bidez Neugan sinistuko dabenen alde erregutzen dautzut.
 Beti eta eten bagarik otoitz egin bear dozue. Lagun talde aundiak jarraitzen eutsan.
 Aitari, Nire izenean eskatu eskatu dagiozuen edozer emon dagitzuen.
 Zuatariko bik zerbait eskatzeko alkar bat egiten badozue...
 Eta irudiz aldatu egin zan arein aurrean... Pedro'k dirautso:
 "ederto gagoz emen!"... Bildurtuta egozan eta...
 Lagun taldeak atsegiñez entzuten eutsan.

Lenengo agerpena: "Bildur-bildur egin nintzan lenengotan. Baiña ez neban igesik egin. Andereak, ("damiak"), "Aitaren" egiñaz, Gurutze Santuaren ikurra egin eban. Orduan neuk be egin aal izan neban eta nasaitu nintzan... Ezpanak erabili barik, errosario-garauak igaro egiten zituan... Pertsona batek beste pertsona bat begiratzen dauanez begiratzen ninduan..."

Irugarren agerpena: "Egingo daustazu, amabost egunnean ona etorteko mezede?... Mundu onetan zoriontsu egiterik ez dautzut agintzen, baiña bai bestean".
 — "Patois" egiten eustan berba. "Vous" ka egiten eustan. (Frantzezerazko "tu" barik).

Lenengo aldia:

- Erreuetatik, Otoitzera eldu; bakarrekotik, aurkitzekora.
- Norbere otoitz ixilarentzat astia aurkitu eta baita komunidadean ospakizunetan parte artzeko be...
- Orduzkanpoko eroste bitxiak baztertu... Eta kontuz, turismo gogoak "gure Lurdes", ez daian ondatu!...

GOGOETAK

PEKATUA TA GURUTZEA - ONBIDERATZEA TA ERRUKIA

- Ez naz Ni zintzoai dei egitera etorri, pekatariari baiño.
- Orrelaxe poztzen dira Jainkoaren aingeruak, damutzen dan pekatari bategaitik.
- Getsemani n lurrean auzpeztu zan: Aita, au nik edan bagarik ezin igaro ba'da, egin bedi Zure naia.
- Gizon itxurarik be ez eukan.
- Jesus, arantzazko koroe ta purpurazko soingaiñezkoz jantzirik urten zanean, Pilato'k dirautse: "Emen dozue gizona!"
- Bera (guganako maitasunagaitik) pekatu biurtu eban.
- Orra or, Jainkoaren bildotsa! Berak eroan ebazan gure pekatuak.

Zortzi garren agerpena: "Penitentzia, penitentzia, penitentzia!"

"Pekataria onbideratu daitezcan, eskatu Jainkoari".

— "Bera triste egoalako egiten neban negar".

BEDERATZIGARREN AGERPENA: "Ardurako ete leuskizu, belauniko ibiltea... lurrari pekatariakaitik mun egitea... Or dagon bederra jatea... ? Zoaz iturrira; ura edan eta gabitu zaite!".

— "Lupetz antzeko ura aurkitu neban an... Ain loi egoan ze, iru bider bota egin neban. Laugarrenean artu aal izan neban... pekatariakaitik".

— "Agerpenak. lenengo neuretzat agindu eustan; gero besteentzat... Oi! Pekatariek ba-lekie!"

— "Erregutu nigaitik, pekatari gaixo onegaitik!" (il-agiñean, bere azken berbak).

Bigarren aldia:

— Penitentzietatik, Penitentziara; autortzetatik, Autortzara eldu; ONBIDERATZERA!

Gurutz Bidearen lekua; penitenti-ospakizunarena; urarena t.ab...

Jainkoaren aurrean agertu (azterketa, autortzaren bidez) besteen aurrean (batzar, konbibentzietan) gure eragozpen, jauste, frakasuak eta pekatu lorratza gure artean daroan guztia. Ez baiña, "epaitu eta gaiztetziteko"; "alkarren zamak" eroateko baiño; argitzeko, adoretzeko, errukitzeko. Eta OTOI EGITEKO,... danen alde!

GURE ZEREGIÑA ELIZA BARRUAN: MISIÑOIA

- Zetan diarduzue zerura begira?
- Guztiok gogo batez... Maria'gaz otoitz egiten ziarduen.
- Onetantxe ezagutuko dabe guztiak Neure ikasle zareena; zuek alkar maite izatean.
- Espirituaren indarra ixuriko dautzuet eta Nire testigu izango zarie.
- Joan zaitezcan eta frutua emon dagizuen aukeratu zaituet!
- Neu nago zuekaz egunoro azken aldirarte. Areik, alde guztietan zear, Barri Ona iragartera urten ziran. Pozik joiazan, Jesusen izenagaitik iraingarri aurkitu ebezalako.

Amairugarren agerpena: "Joan zaite abadeekana, kapilla bat eregi dagiela emen esaten eta datozela peleginaziñoan!".

Amaseigarren agerpena: "Sorkunde Orbangabea Naz ni".

— "Pozik nago, nire mandatua bete dot! Sinistu eraztea ez iata agindu!

— "Kapillea ez da niretzat bakarrik izango ". Beartsua izan gura dot.

— Orain, beste danen modukoa naz!

— Sei urtetan bere bokaziñoaren billa ibili zan: "Gaixoak.. umeak zaintzen joan gurako neuke... Erlijiosa egin bear nazala dakit orain. Nire zeregiña gaixorik egotea dal... Nevers era joan arren, bere sendia, Lurdes, munduko jazoerak, ardura aundiz jarraitzen ditu.

Bizitzan une bat be ez dot igaro gura maite izan barik".

Irugarren aldia: Eleizeagaz mundu zabalean sarturik...

— Lurdes'en egindako esperientzia agertu: Eleiz-bizia; otoitz-Eliza; mundu guztiari zabaldua; anaikor mixiolaria...

— Bakoitzak bear dauan "txokoa" aukeratu, bazterrik bazter ibili barik...

— Bakoitzaren tokia Eleizan aztertu; norbere ingurua, ingurumaria ta bizitza obetzeko konpromisuak artzean.

— "Biotz barri bategaz" adoretuta, lengo bizikerara biurtzeko, OTOI EGIN!

(Anjou'ko "Bulletin de l'Oeuvre des Malades de Lourdes"tik egokitua)

MAITENA'K

ITXARTU GAITEZAN...!

Artega agertu ekigun, Zubiri'tar Iñaki, Bizkai'ko euskerearen zoritxarra dala-ta, aldizkari onetan, *Itxartu zaitzeze...!* idazlanaz. Ezta gitxiagorako izan be; bai alkartze-bideetan, bai Jaurларitzen, erakundeetan, iragarkietan eta baita Aldundian bertan bere, bizkaiereari egiten diarduen ekintza kaltegarria ikusita.

Atzeizki bitxiz, erdel-itx ganorabakoz, aditz-erabilkera lorriñez, atzekoz aurrerako joskeraz eta erdel-oguzkeraz (azentoz) darabilen "el batua" euskera gaizto arbuiagarri orreaz, erri-euskerea erailten diardue, ba. Nik neuk eztaikit (ala bai?) nok edo nortzuk aukeratutakoak izan daitekezan gure (gure?) alkartebideetan diarduen esatariak: Euskeldun jatorren oguzkerarik bere eztauke, ba. Giza-izenak, erri-izenak eta abar erderaz oguzten dituez, gastelerazko Z-ta guzti. Eta olakoxeen eskuetan dabil gure euskerea; guztien ezaguna dan bizkaierazko itx bat esan baiño gurako dabe, inguruko erderatik artu eta txarto atonduta esan.

Guk geuk, adiñeratu giñanezkero, beti ekin izan dautsagu euskerearen berbizte-lanean baiña oraingo *euskeltzaleak*, guztiak ez esatearren, geienak beintzat, diruagaitik diardue euskera-arloan, baiña orrean gogoetan eztago benetako euskeltaletasunik ez abertzaletasunik bere, euren artu-emon eta autu guztietan erderaz ekiten dautse-ta. Dirutza andiak dabiz ibilli be, zoritxarrez, euskera-arazoan, Jaurларitzagandik eta abar; guztiak benetako euskerearen kaltegarri. Diruaren eragiñik ezpa'litz, ikusiko genduke benetan euskerea maite dabenak nortzuk direan.

Euskel-senik bagako eta euskera-gaizto baiño eztaikien *irakasle* eta irrati ta irratikuskiñetako esatarien eskuetan dabil, ba, gure euskerea eta kalteak-kalte egiten diardue erri-berbeta jator eta benetakoari.

Zuzen dago, ba, Zubiri'tar Iñaki euskeltzale ta idazle argia, bizkaiera-zaleok (baita gipuzkoarrak be) itxartu gaitzala oi u egiteaz: Begiak edegi eta erakunde, Jaurларitza, Aldundi ta euskera-arloan euren "elbatua" lorrin ori lotzagarriri zabaltzen diarduen guztieri gogor egin bearrean gara, ba. Geure diruakaz geurea ondatzen, erri-euskerea ondatzen diarduenai oles-egiteko aldia eldu dala uste dot, ba, beranduegi izan baiño leen, Iñaki adiskideak diñozkun lez.

Bizkaierearentzat ez dago, ba, ez dirurik, ez begiramonik ez leiaketetarako aukeramonik bere, arean: Guztiz baztertuta gaukez erri-euskereari eusten diardugunok. *Atzo goizean*, diruaren usaiñera, agertu direan izkuntza-lorrintzailleak yabilkuz aurrelari euskera-gaizto orreaz inguruak ondatzen.

Benetako euskeltzaleon artean arabagi bear genduke, ba, geure bultzakadak nortzuri eta zelan egin euren okerkeria ezagutu eta gogo-barruragiño sartu dakioen egiten diarduen kaltearen eragiña.

Itxartu zaitzeze...! diño Zubiri'tar Iñaki olerkari bikaiñak. Itxartu gaitzezan...! diñot neuk bere, eta egin dagigun deadar, zoli, bazter guztietara eldu daiten benetako euskera biziaz diardugunoen oiartzun eraginkorra. Erriaren berbeta galdu ba-dakigu, agur gure aberriaren izan-izangoa. Olakoxerik jazoten ezin daikegu itxi, ba, ezegaitik bere. Lenago il...!

*

Oartxu bat Latiegi jaunari:

Zeure eretxikoa nozu, bete-betea, *Askatasun Gogoetak* idazlanean Bagille'ko ZER-en diñozuzanakaz, Euzkadi S-az idazteaz izan ezik. Sabindarra daitenak ezin onartu daike, ba, S ori.

Arana-Goiritar Sabin'ek Z-az idaztzi eban eta ari jarraituz, euzko-gudariak be *Z-az idatzi* genduan, geure gazte-odolaz, euzko-mendietan. Olan zabal izan zan ludia-zear be. Marx-Lenindarra eder-egitea da, ba, bestera idaztea.

Irarkolako uts-egitea be ba-daiteke, mozolo asko dabil induruetan-da.

AURRE-APRAIZ'ek

Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.